



BEKAK 2024/2025

1.- HEZKUNTZA SAILEKO BEKAK

1.1.- Hezkuntza Saileko bekak eskatzea

Hezkuntza Sailak 2024-25 ikasturteko beken deialdia zabaldu du. Beka BERRIAK eta aurreko urtean UKATUAK izan zirenak ikastolako administrazioan eskatu behar dituzue. Berriztatzaileen bekak (lehenengo urtean ONARTUAK izan zirenak soilik), aldiz, online egitea lehenesten da (berriztatzaileek beste ohar pertsonal bat jasoko duzue ikaslearen bitartez).

1.2.- Laguntza motak

- A) Jantokirako laguntzak (gehienezko zenbatekoa): 818,80€
Ikastolako jantokian ALTA emandako egunak soilik jakinaraziko ditugu Hezkuntza Sailean.
- B) Material didaktikorako laguntza:
* **HH:** 78,00€
* **LH eta Hezkuntza Berezia:** 117,00€
* **DBH:** 159,00€
- C) HPB hezkuntza laguntzaren berariazko premiak dituzten ikasleentzako laguntzak:
a) Hezkuntza laguntzaren berariazko premia duten ikasleak, Hiperaktibitateagatik Arreta Defizitaren Nahasmendua (AGHA) duten ikasleak barne, ehuneko 25eko edo gehiagoko desgaitasun maila edo jokabide nahaste larria dutenak.
b) Hezkuntza premia bereziei lotutako komunikazioaren eta hizkuntzaren nahasmendu larria duten ikasleak.
c) Espetro autistaren nahasmenduarekin (TEA) lotutako hezkuntza laguntzaren berariazko premia duten ikasleak.
d) Adimen gaitasun handiari lotutako hezkuntza laguntzaren berariazko premia duten ikasleak.
*Ikasleek 2024-2025 ikasturtean egon beharko dute erregistratuta hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasle gisa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren aplikazio informatikoan, eta ikastetxe espezifikoko batean, ikastetxe arrunt bateko hezkuntza bereziko unitate batean edo hezkuntza laguntzaren berariazko premia duten ikasleak eskolatzeko baimena izan duen ikastetxe arrunt batean eskolatuta egon beharko dute.
***Diru kopurua finkoa, gastuetarako sorospena:** 400,00€. Sorospenak emateko ez zaio errentari edo familia ondareari erreparatuko.

1.3.- Baldintza ekonomikoak (2023)

Material didaktikorako laguntzen eta jantokiko laguntzen taula, senideen eta gehienezko irabazien arabera.



**Gainditu behar ez diren 2023ko IRABAZI GARBIAK =
Zerga oinarri orokorra + aurrezpenaren oinarri likidagarria – kuota likidoa**

Familiako kideak kopurua	MATERIALA: LH eta DBH	MATERIALA: HH JANTOKIA: HH, LH eta DBH	HPB: hezkuntza laguntzaren berariazko beharra
1	15.567 euro	13.898 euro	12.534 euro
2	26.573 euro	23.724 euro	20.416 euro
3	36.070 euro	32.201 euro	26.811 euro
4	42.836 euro	38.242 euro	31.801 euro
5	47.878 euro	42.743 euro	36.086 euro

Aplika daitezkeen kenkariak (agiriekin justifikatu beharrekoak)

- Guraso bakarren kasuetan, 500€.
- Sostengatzaile nagusiak ez diren familiako edozein kide konputagarrik emandako diru-sarrerren %50.
- 525€ etxe berean bizi diren seme/alabako, eskatzailea barne, maila orokorreko familia ugaria bada. Eta 800€ maila bereziko familia ugarien kasuetan.
- Ezintasunak: 1.811€ %33 eta %65 artekoa denean; 2.881€ %65a baino gehiago denean.
- 1.176€ etxetik kanpo unibertsitate ikasketak egiten ari den seme/alaba bakoitzeko.

*Agiri bidez egiaztatu ezean, ez dira kontuan hartuko egoera horiek.

Dekretua begiratu nahi baduzue, hemen duzue:

https://haurtzaroikastola.eus/app/uploads/2024/09/Bekak_2024_2025_Informazio-orria.pdf

1.4.- Aurkeztu beharreko agiriak

- **Guraso bananduak edo guraso bakarrak:** banatu ondorengo epaia edo hitzarmen arautzailea eta elikagaietarako pentsioen ziurtagiria.
- **Ikaslearekin bizi diren aitona-amonak:** udal bizikidetzaren errolda ziurtagiria.
- **Errenta Aitorpena egin behar ez dutenak:** 2023. urtean lortutako diru sarrerren ziurtagiria.
- **Jabetzen kontribuzio erreziboak** (ohiko etxebizitzarena izan ezik).
- **Familia ugariaren ziurtagiria.**
- **Ezintasun edo minusbaliorik bada, ziurtagiria.**
- **IBAN zenbakia.**

1.5.- Eskera ikastolan aurkezteko epea

KONTSULTAK EGITEKO eta ESKAERAK AURKEZTEKO EGUNAK:

IRAILAREN 9tik IRAILAREN 20ra

08:30etik 13:00etara eta 14:30etik 17:30era



2.- IKASTOLAKO BEKAK

Haurtzaro Ikastolak, bere sorreratik, komunitatearen barruko elkartasun irizpidea izan du proiektua aurrera eraman ahal izateko aldarria. Espiritu hori mantentzen du gaur egun ere, horregatik, ikastolak baditu bere beka propioak ere.

Beka arautegiak atal hauek hartzen ditu kontuan:

- Kuotak ordaintzeko zailtasunak dituzten familiak: kuota finkoaren planteamendua.
- Irakaskuntza kuotak murriztea.
- Gastu guztien beka.
- Egoera berezian dauden familien kasuak.

Aipatu behar dugu, kasu guztietan, Hezkuntza Sailaren beken osagarri direla eta familia bakoitzaren errenta mailaren arabera banatzen ditugula, uneko egoerak ere kontuan hartuta. Salbuespenak ere aztertzen ditugu.

Kontseilu Errektoreko Beka Batzordeak, ikastolak indarrean duen beka arautegia kontuan hartuta, ikasturteko barruko beka eta laguntza sistema bideratzen ditu. **Haurtzaro Ikastolako proiektuan egoera ekonomiko guztiek dute lekua.**

Beka hauek eskatzeko epea eta ordutegia aurrekoen bera da. Epe honetatik kanpo justifikatuak dauden egoerak aztertuko ditugu.

Ikastolako administraria

